

ELKARRI MOKOKA: Mikel eta Aitor **ERREPORTAJEA:** BiziLarraunbizi **HAIZEAK ERAMANA:** Eneko Etxarri
KUXKUXEAN: Ekaineko zorion agurrak **ELKARRIZKETA:** Itxaropen telefonoa **EKINAREN EKINEZ:** WISCO

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Araiztarrak Udal ordezkaririk gabe

Ioseba Goikoetxea (Gorriti)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Araitzen ez dute Udala osatzerik izan. Nafarroako Parlamenturako soilik eman dute boza. Gainontzeko Udaletan erabakita gelditu dira hurrengo lau urteetan arituko diren izenak.

Mailope oporretan


Bertan dugu uda eta zuetako askok da-goeneko zuen oporrak antolatzen ibiliko zarete. Aurten bada motxilan sartzeaz gogoratu beharreko ezinbesteko gauza, gure aldizkaria. Uda honetan zoazen lekura zoazela eraman ezazu zurekin Mailope eta atera ezazu zure udako argazkia.

Hala egin zuen joan den martxoan Vega Botello lekunberriarrak. Larraungo 38 emakumerekin batera joan zen Pragara eta Mailoperekin egin zuen joan-etorria. Horra hor Vegak Sinagoga zaharraren aurrean eta Kafka idazlearen etxe aurrean (egun liburutegi bihurtua) ateratako argazki pareak.



- 2 -

Animatu eta bidali iezaguzu zure argazkia irailaren 20a baino lehen mailope@labrit.net e-postara.



Txantxaria bazina, nora joango zinateke? Eta zergatik?

Horiek izan ziren aurrekoan luzatu genizkizuen galderak. Horra hor Naia Agirrek bidalitako erantzuna: "Ni txantxaria banintz... oso urrutira joango nintzateke... mendi bazter batera... amona mantangorri, tximeleta eta txoritxoekin jolas eta salto egitera...".

Zorionak Naia, zuretzat izanen da "Txantxariak euskal jolasen bilduma"!



04> Iritzia

08> Luze: Koldo Nuñez Betelu

09> Zabal: Iñigo Ulazia



10 > BiziLarraunbizi

Larraungo herrietako etorkizunarekin arduraturik egitasmo berria sortu du larraundar talde batek. Garapen egitasmo bat jarri nahi dute martxan, herrien etorkizuna ziurtatu eta larraundarren talde nortasuna bultzatzeko.

13> Kuxkuxean: Ekaineko zorion agurrak

16> Elkarrizketa: Josune Beltza, Itxaropen Telefonoa



23 > Naturbideen Eguna

Nordic Walking-ari buruzko tailerra eta hitzaldia izan ziren aurtengo berritasunak Naturbideen Egunean. Plazaola Partzuergo Turistikotik ibilbide ezberdinak proposatu zituzten eta txikienek, urtero bezala, Plazaolatik Mugioko presarainoko joan etorria egin zuten bizikletaz animazio eta guzti.



24 > Nafarroako Segar Txapelketa

Mikel Berekoetxeak lehen aldiz parte hartuko du Azkaraten eginen den Nafarroako Segar Txapelketan. Uztailaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan, Jon Kanflankaren aurka arituko da.

26> Kirola

27> 20 urte bidean

28> Ekinaren ekinez: WISCO Española S.A.

30> Haizeak eramana: Eneko Etxarri

31> Kontu txikiak

Mailope doan banatzen da honako herrietan: Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarteak.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, Nerea Urbizu, Olatz Glaria, Ibon Urriaga, Eneko Etxarri, Mitxauseneko argazki artxiboa, Larraungo AEK, Vega Botello eta Joxe Mari Zabaleta.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103
mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

TIRADA: 1.600 ale.



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udal, kontzejuek eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Euskara merkataritzara

Euskararen normalizazioan berebiziko garrantzia du merkataritza arloak. Pentsa zenbat esaldi sortzen diren, egunero, gure denda eta tabernatan. Zenbat hitz dauden idatzita kaleetako saltokietan, fakturretan, ordutegietan. Eta hitz, esaldi, elkarrizketa horiek euskaraz edo gaztelera izan ez da gauza bera. Lekunberri eta Larraungo Euskara Batzordean lehentasunen artean dugu gure herrietako saltokietan euskarak aurrerapausoak ematea. Hori dela eta, bezeroei kalitatezko zerbitzua emateko bidean, zerbitzu hori euskaraz izatearen garrantzia kontuan izatera eta dagozkien urratsak ematera gonbidatu nahi ditugu merkataria.

Bide horretan laguntzeko prest gaude gu, jakina. Euskara Zerbitzuak itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen die merkatariei, eta baita sor litezkeen beharretan laguntza ere. Horrez gain, baina, eta ekimena indartzeko asmoz, badira hilabete batzuk Euskara Batzordeak gure herrietako saltokien diagnostikoa egin zuela, denda eta saltoki bakoitzean hizkuntzak duen

lekua hobeto ezagutzeko. Aurrerapausoak eman direla ikusi zen azterketa horretan, baina oraindik ere badira egiteko eta hobetzekoak.

Orain, diagnostiko hori oinarritzat hartuta, ekainean zehar euskara teknikariak gure udalerrietako saltokiak eta merkataritza guneak bisitatuko ditu. Bisita horietan merkataria bakoitzak euskararen arloan dituen beharrak ezagutu, aurrerapausoak emateko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskaini eta elkarlanean urratsak adosteko ahalegina egingo da.

Merkatariek egindako saiakera txalotzeaz gain, erosleak ere animatu nahi ditugu merkataritza euskalduntzeko ahalegin honetan bat egitera, ahal den guztietan erosketak egiterakoan euskara erabiliz. Bizi euskaraz, erosi euskaraz.

Lekunberri eta Larraungo euskara batzordea

Aralar Musika Eskolako matrikulazio kanpaina 2015-2016

Musika eskaintza:

4 urtetik gora / Helduak ere bai.

7 urtetik gora musika tresnak jotzeko aukera: akordeoia, gitarra, pianoa, txistua, saxofoia, zeharkako xirula, trikitixa eta perkusioa.

Matrikulazio epea: maiatzaren 25etik ekainaren 28ra, soilik herriko udaletxean.

Informazio gehiago:

948 50 44 89 / 672 122 472

www.Aralar.org

Herriko udaletxean.

(Ziurtagiri ofizialak emateko autorizatuta).



Hostal Betelu
<http://www.hostalbetelu.com>
Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak
Etorri eta on egin!
Erreserbak: 948513026 676145637

BETELU PNEUMATIKOAK
TAILER MUGIKORRA
NEUMATIKO ALDAKETA ZULATZEEN KONPONKETA
Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA
Gruas y Talleres LARRAUN s.l.
Lekunberriko industriagunea, 21. nabea
31870 Lekunberri Nafarroa
Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

Zuhaitzak eta arbolak

Garai batean entzuten zen zuhaitza zela basoko edo oihaneko landare handia, eta nolabait esateko, frutarik ematen ez zuena, konparaziora, zumarra, pagoa, haritza, eta abar. Eta, aldiz, frutak ematen dituztenak, haiak arbolak edota fruta arbolak omen ziren, esaterako, sagarrondoak, udareondoak, intxaurreondoak, aranondoak, eta abar. Baina, polemika horretan sartu gabe, ikusten duguna da izadia, natura, aste hauetan, latitude eta altitude hauetan lehertu egin dela udaberriaren etorrerarekin. Hiri, herri, landa-gune eta mendietan nabarmena da nola dagoen landaredi guztia indar betean.

Herri eta hirietan gaur egun, eta segur aski aspalditik, zuhaitz, zuhaixka eta mota askotako landare ugari jartzen dira, eta hori oso mesedegarria da, ez bakarrik izadiarentzat, baizik eta baita bizidun guztientzat ere. Zuhaitzek eta zuhaixkek gauza on asko ematen dituzte: egurra, zura, hostoak, abarrak, adaxkak (azken hauek konposta egin ahal izateko), itzala, oxigenoa, babesen pertsona eta animaliei, frutak, fruituak, estetika eta edertasun jakin batzuk, eta abar eta abar.

Hiriak aintzakotzat hartuta, neronek hobekien ezagutzen du-dana, ziur asko, Iruñea izanen da. Baina, gai honetan, badaude bi kontu asko konbentzitzen ez nautenak, alegia, lehenengoa da, normalean bertako landaredia baztertu eta ezkutatu egiten duena, eta bigarrena, frutak eta fruituak ematen dituztenak, era berean ere, baztertu eta errefusatu egiten dituenak.

Konparaziora, Iruñean oso zaila izaten da ikustea hemengo espezieak, esate baterako, pagoak, haritzak, astigarrak, zumarrrak, izeiak, ler beltzak, ler gorriak, lizarrak, eta bat eta beste. Eta beste horrenbeste gertatzen da fruitu eta fruta arbolekin, hau da, Iruñean zaila gertatzen da ikustea, adibidez, intxaurreondoak, gaztainondoak (indigaztainondoak edo itsas gaztainondoak bai, horiek ugariak dira), hurritzak, sagarrondoak, udareondoak, aranondoak, gereziendoak, pikondoak, elorri beltzak, mahatsondoak, mahats-parrak, eta abar.

Egia esateko, aitortu beharra dago, azken urte hauetan hasi naizela ikusten salbuespen batzuk, konparaziora, Etxabakoitz auzoan, Arga pasealekuan, Lezkairu eta Mutiloa artean, Sarrigurenen eta beste nonbait. Gainera, adierazi behar dut, azken beritasun hauek, niri behintzat, egundoko poza eman didatela. Neronek, inolako eragozpenik gabe onartzen dut zuhaitz exotikoak landatzea eta baita fruta eta fruiturik ematen ez dituztenak ere, baina akats handia iruditzen zait horiek soilik birlandatzea. Zergatik ez, modu berean, bertako-bertakoak eta fruitu-frutak ematen

dituztenak ere? Neronek oso onuragarri ikusten dut azken hauek ere landatzea herri, hiri eta auzoetan.

Inork, agian, esan lezake gizalege gabeko jende asko dagoela, eta, frutak eta fruituak hartzeagatik adarrak, zuhaitzak eta zuhaixkak berberak ere hautsi eta hondatu ahalko lituzketela pertsona horiek, baina nik uste dut hori ere alde positibotik begiratu eta hartu beharko genukeela, alegia, landare horiek denenak eta publikoak baldin badira, herritar gehienek ikasiko lukete pixkanaka-pixkanaka zuhaitzak-eta baloratzen, errespetatzen, zaintzen eta ez hartzen behar duten fruitu-fruta baino gehiago.

Uste dut gizaki gehienengan jarri ahal dugula konfiantza, gai hauetan ere, beste gai askotan jartzen dugun bezala-bezalaxe. Halaber, honek guztiak, iruditzen zait, herri, hiri eta auzoei nor-tasun eta izaera bereziak ematen dizkiela.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz

XIV. Aralarko Martxaren antolaketa

Ekainaren 2an, asteartea, arratsaldeko zortzietan bilera egingo da Lekunberriko Kattagorri elkartearen.

Pertsonak behar ditugu (Elkarteko kideak nahiz lagunak) ekainaren 14ko martxaren antolaketa lanekin laguntzeko.

Eginbeharren laburpena:

Ekainak 12, ostirala:

Martxako laguntzaileen produktuak bildu eta Lekunberriko udal-txean gorde. Materialaren antolaketa kontrol edo anoa-postuetan.

Ekainak 13, larunbata:

Ibilbidearen balizatua, zintak, konfetiak eta hesolak.

Materiala eta anoa-postuak ibilgailuetan sartzea.

Ekainak 14, igandea:

Materialen garraioa eta kontrolen eta anoa-postuen muntaia.

Martxako irteerarako, kontrolerako eta helmugarako pertsonak.

Paella egiteko eta banatzeko pertsonak.

Interesatu oro gonbidatuta dago ekainaren 2an lan horiek guztiak banatzeko egingo den bilerara. Bilerara joaterik ez duten horiek parte hartzeko euren burua eskaini dezakete ttuturreki-rollelkartea@gmail.com e-postaren bidez.

Ttuturre Kirol Elkarte

GARAZ Zure behar eta ordubegira moldatuko gara

ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZU!

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika inglesa
lengua kimika

948 504 450
648253521

marrasketa teknikoak
euskera historia

unibertsitate mailako ikasgaiak

ALBI Taberna-kafetegia

Eguneko menua, jai egunetako menua,
bokatak eta pintxoak

Herriko plaza, 948 604 554,
Lekunberri

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Ioseba Goikoetxea (Gorriti)



*Gure eskutan dago
gure etorkizuna
galduko ezpadugu
gure nortasuna
lortzeko beharko da
denon batasuna
ahoz lortuko dugu
herri euskalduna.*

*Azkenaldian bada
griña ta irria
nabaritzen delako
bizipoz berria
eredua nola den
gure oinarria
euskahaldunak libra
beza Euskal Herria.*

Iosu Begiristaintzako puntua:

Ametsetik egira
doan aldaketa

Oinak:

Indarra, Earra, Beharra, Naparra.



Doinua: "Larraungo Zortzikoa"

- 6 -



TXAKUR LEHIAKETA

Joan den hilean, Espainiako txakur lehiaketa egin zen Lekunberrin. Bertan, arraza ezberdinetako txakurrek euren zintzotasuna eta ezaugarri fisikoak erakutsi zituzten.



UDALEKU IREKIAK

Uztailaren 6tik 23ra eta uztailaren 27tik abuztuaren 13ra udaleku irekiak izanen dira Lekunberriko kiroldegian sei eta hamabi urteko gaztetxoentzat. Asteleheneretik ostegunera 9:30etik 13:00etara natur jarduerak, kirola, ekintza kulturalak etab. egingen dituzte. Eman izena ekainaren 19a baino lehen 65 euroren truke 948 604 545 telefono zenbakian edo kirolmank@gmail.com-en.



NEPALEN ALDEKO AFARIA

Nepalen gertatutako hondamendiari aurre egiten laguntzeko afari solidarioa antolatu du Ttutturre Kirol Elkartek. Afaria ekainaren 6an izanen da Lekunberriko Kattagorri Elkartearen.

Adierazpen askatasunaren muga



Mikel Alvarez

Aupa berriro ere Aitor! Aspaldi buruan bueltaka dabilkidan ideia bat plazaratu nahi dut: adierazpen askatasunaren gaineko hausnarketa bat da. Jakingo duzun bezala, azken bolada honetan Twitter edo Facebook bezalako sare sozialetan "terrorismoa goraipatzeagatik" hainbat jende atxilotua izan da; horrela, esandako edo idatzitako kontzeptu batzuen ondorioz pertsona andana dago epaiketaren zain. Bada- kit agian norbaitek ez duela begi onez ikusiko esango du-

"Pertsonen ideiak ez dira legeekin edo epaiketekin geldiarazten"

dana, baina nire ustez delituak ekintzetan soilik oinarritu beharko lirateke eta ez esandako edo idatzitako hitzetan. Printzipio hau edozein esparrutara

eramango nuke; pertsona batzuk frankismoa gorai-patzeko manifestazio bat deitzen badute, nire ustez, baimena eman behar zaie, izan ere, ideiak ezin beharko lirateke epaitu. Horrela, gizartearen sektore txiki batek gainerako gizartearen gehiengoari deserosoak zaizkion gaiak defendatzen baditu (hala nola, arrazakeria, sexismoa edo homofobia), gizarte horrek berak ikusi beharko luke zer egiten duen gaizki horre-

lako ideiak oraindik ere bere artean existitzeko. Beste modu batera esanda, pertsonen ideiak ez dira legeekin edo epaiketekin geldiarazten, pertsonen ideiak beste ideia edo ekintzekin geldiarazten dira. Ezin dira ideiak kode penalean sartu eta gauza material baten modura epaitu.

Hau dena geurera ekarrita, nola da posible baten batzuek pentsatzea gizartearen zati handi baten ideiak epaiketen bidez geldiarazi daitezkeela? Nola da posible zerbait oihukatzeagatik kartzelara sartu zaitzaketela? Oraindik ez dira ohartu arazoa ez dagoela duten legeetan; disidentzia gizartearen gehiengoa da, disidentzia dagoeneko beraien gainetik pasa dela eta gutxi barru, beraiek izango dira disidentziaren gutxiengo hori. Jai daukate horren aurrean ez badute ezer egiten...



lepa Mikel!! Hala da bai, terrorismoari goratarre egiten diotenak epaitzen dituztela justifikatuta, beraiek dira izua zabaltzen dutenak, baina horrekin ez digute pentsatzeko dugun askatasuna kenduko. Boteredun askok orain dela hilabete batzuk "Je suis Charlie" esan eta adierazpen askatasuna aldarrikatzen zuten bitartean, kontrakoa egin dute praktikan. Egin, Egunkaria eta Ateak ireki bezalako komunikabideak itxi, Iruñean ikurrina ateratzea debekatu... Adierazpen askatasunaren kontrako eraso garbiak izan dira. Hitzak eta pentsamen-



Aitor Irastortza

"Hitz batzuek zenbait ekintzak bestelako eragina izan dezakete"

duak ezin dira delitu gisa epaitu, bai ordea ekintzak. Dena den, hitz batzuek zenbait ekintzak besteko eragina izan dezakete eta nahiz eta delitu gisa hartzerik ez izan, adierazpenaren kudeaketari garrantzi berezia emango nioke. Esaterako lagun arte batean besteei hizketan uzten ez dien hizlari bat badago, haren adierazpen askatasuna ez zait zilegia iruditzen, besteen askatasunaren gainetik jartzen baita. Errespetuaren muga gaitzea ere ez zait justua iruditzen. Beraz, adierazpen askatasuna, besteen askatasunarekiko errespetua dagoen punturaino onartzen dut.

Gainera, egungo komunikabide nagusien eta bereziki telebisten gestioa salatu nahi nuke. Gizarte eredu aurreakoi bat bultzatu beharrean, blokeo egoeraren bultzatzaile nagusietakoak iruditzen zaizkit. Eskolan errespetua, elkarlana, parekidetasuna... barneratzeagatik egiten dituzten ahaleginen ondoren, popatik hartzera bidaltzen dute lan guztia segundo batean, mezu hutsal eta funtsik gabeak transmitituz. Denak ezin zaku berean sartu noski, baina komunikabideei oinarritzeko baloreetan gehiago sakondu eta "linbo"-tik jaisteko eskatuko nieke, ikuspuntu guztientzako tartea uztziz. Eurei, adierazteko pribilegioa eman zaien moduan, gizartearen hezkuntzarekiko duten ardura ere, egoki betetzeko eskatuko nieke. 2013ko Gazte Danbada "terrorismoari goratarre" egitea egotzita epaituko dituzten Ernaiko 7 kide eta Topatuko kazetariari, nire babesa adierazi nahi nieke.



Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

Bihotzaren minak

Maiatzak beti tristura ekarriko du niretzat. Izan ere, 1993ko maiatzaren 15ean nire lehenengo umea, Ibai, etorri zen mundura eta bi egun berandua go ospitalean bertan hil egin zen. Karrera askatze edo gaztelaniaz esaten den bezala “desprendimiento de placenta” baten ondorioz jaio zen Ibai haurdunaldiaren zortzigarren hilabetearen hasieran. Bi egun zein azkar joaten diren eta zenbat urtetarako uzten duten marka!

Budak behin horrela esan omen zuen: “Gure biziak udazkeneko lainoak bezain azkar pasatzen dira. Izakion jaiotzari eta heriotzari begiratzea, dantza baten mugimenduei erreparatzearen antzekoa da. Bizitza, zerua zeharkatzen duen tximistaren argiaren parekoa da, korrika doa, mendi malkartsu baten behera ura jaisten den bezala”.

Ibairen bizia, tximista motz baina oso argitsu baten modura pasatu zen nire begien aurretik. Tximista honen argiak segitzen du oraindik nire begian, oraindik entzuten dut trumoi hura nire barruan eta eztarriak eusten dio oraindik nire bihotzetik abiatu zen oihuari. Dagoeneko 22 urte pasatu dira baina minak segitzen du hor, motelago bada ere. Hasieran kostatzen zitzaidan gertatutakoa sinestea eta heriotzari beldurra galdu nion denbora baterako. Gero etorri zen errudun sentitzea, errudun agian ez genuelako egin, behar zen guztia. Ondoren, amorrua, haserrea. Zergatik Ibai hil behar haurdunaldian dena horren ondo joan bazen? Azkenean tristura geratu zen nire bihotzean. Nire lehenengo umea izan zen, gero etorri ziren nire alabak eta bete zuten nire bihotza maitasunez. Baina iltze batek ez

“Ume bat galdu duenak bakarrik daki zer den hori”



du beste bat ateratzen. Bakarrik ume bat galdu duenak daki zer den hori; hildakoak utzitako hutsunea benetan ezin du inork bete.

Inoiz, ume bat oso gazte hil denean, hurrengoari izen bera jarri zaio arrazo desberdinengatik. Esaterako, pentsa dezakegu horrela ez dugula ahazten hildakoa eta horrela, hutsunerik ez dagoela. Baina horrela benetan bi arazo desberdin abiatzen ditugu. Batetik, hildakoaren oroimena gordetzeko bide ona ez da eta, bestetik, atzetik jaio denari ez zaio aukerarik ematen bera izateko. Bere anaia, arreba edo ahizpa hildakoaren tokian jarri zaio eta horrela bere benetako bizia bizitzen ez zaio uzten, ukatu egiten zaio toki bat mundu honetan ez bada hildakoaren zuloa betetzen. Eta honek arazo asko ekarriko

dizkio bizitzan zehar.

Bai gurasook, bai hildakoaren anai-arrebok, oso presente izan behar dugu hil zena. Horregatik, nik beti aipatzen dut nire lehenengo semea, gero nire alabak. Abortuak, naturalak zein nahita eragindakoak ere kontuan hartu behar dira. Ez dira ahaztu behar. Azken batez, egun gutxi batzuetako haurdunaldia izan bada ere, umea existitu da. Eta, gainera, ume horrentzat izen bat pentsatu badugu, izen hori ez erabili gero jaioko den batekin, abortuaren tokian jarriko baitugu gero jaiotakoa.

Jaioberritan edo gaztetan hildako umeak eta abortuak, bihotzean eta ezpainetan eraman behar ditugu. Aipatu, hitz egin, kontatu gero jaio direnei aurretik beste batzuk egon zirela orain ez badira bizi ere. Ez dezagun gertatutakoa ahaztu edo sekretu bat bihurtu, honek min handia ekarriko baitio familiari.

Urtero, maiatzaren erdia iristen denean, kandelak pizten ditut eta familiaren gogora ekartzen ditut Ibairen jaiotza eta heriotza. Triste sentitzen naiz eta konpartitzen dut, nire alabekin eta nire familiako guztiekin. Horrela egin izan dut heriotza gertatu zenetik eta horrela egitea pentsatzen dut bizi naizen artean. Asko landu dut gaia terapian, konstelazioen bitartez, meditazioetan... eta horiek benetan lagundu naute baina badakit, beti hor egongo dela orbaina, mina. Zauriak sendatu ahal izateko, ukitu egin behar dira. Zuk ere horrelakorik bizi izan baduzu, oso lagungarri izango zenuke terapeuta batekin landu ahal izango bazenu. Benetan, merezi du.

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



Karlistadak

Karlistadetan, Euskal Herrian, foruak eragile garrantzitsua izan ziren, garrantzitsuena ez bazen ere. Historiografia ofizialak ideia hau gogor kritikatzan du, argudiatuz, estatu espaniarrean beharrezkoak ziren erreforma liberalen kontrako erreakzio atzerakoiak izan zirela karlistadak. Hainbat historialarik esaten dute, 1812ko Cadizko konstituzioarekin hasitako erreformak iraultzaileak izan zirela. Baina hau eztabaidagarria da, Espainian ez baitzen egon botere aldaketarik gizarte klase batetik bestera, herri xumea prozesu honetatik kanpo gelditu zen eta berarentzat ezer gutxi aldatu zen.

Nafarroari dagokionez erreforma hauek atzerakoiak izan ziren. Foruak deuseztatzeak bizi baldintzetan galera handiak ekarri zituen. Herritarren ordezkariak ezabatu zen, beraien lurak eta ondasunak administratzeko aukerak zapuztu ziren, komunalak herrikoak izatetik aberatsen eskuetara pasa ziren, zerbitzu militarra inposatu zen, salerosketak kargurik gabe egiteko aukera desagertu zen eta honi guztiari gehitu behar zaio hamaika zerga ordaindu beharra.

Foruen galerak ekartzen zuenarengatik herritarrak karlismoaren alde jarri ziren Euskal Herrian, Espainian elkar-tasun askoz gutxiago izan zuen karlis-

“Foruak deuseztatzeak bizi baldintzetan galera handiak ekarri zituen”

moak. Gerra dinastikoa aitzakia hutsa zen, aukera ematen zuena foruak defendatzeko. Hasierako mementoetan Karlos erregegaiaren aferak bere garrantzia izan zuen, baina poliki-poliki, eta batez ere, bigarren karlistadan foruen defentsa gatazka ideologikoki bideratzen zuen.

Historiografia ofizialetik foruen kontra joatea, jarrera progresistatza hartzen da. Objektiboki jarrera honek ez dauka ez hankarik ez bururik, foru sistema baitzen askoz progresistagoa eta definizioz absolutismoaren kontrako, liberalek proposatzen zuten sistema zentralista baino. Hau dela eta, euskal gizartea, orokorrean, herrialde eredu baten alde borrokatu zen arrotzen interesen kontra karlistadetan. Foruen aferaren garrantzia islatzen du Esparteroren jokabidea, lehenengo karlistadan, bera kontziente baitzen foruen defentsa zela euskaldunak borrokara, gerra, biltzen zituena eta ez afera dinastikoak.



CC BY-SA Ferrer Dalmau

SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Iñigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

**Diario Vasco eta
Diario de Navarra**
Korrespontsala

948513056
699179437

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com



Eta zuk nola ikusten duzu XXII. mendeko Larraun?

Gure eskualdeko herrietako bizitza izugarri aldatu da azkeneko 50 urte hauetan. Garai batean egunero gaztetxoak beteta zeuden plazak ia hutsik daude, ukuiluak ere husten joan dira, orain gutxi batzuk baino ez baitira abeltzaintzatik eta nekazaritza bizi, gehienak kanpora joan dira lan bila. Euren herria gazte koadriekin eta bizi pozarekin ezagutu eta herrian gelditu ziren horiek zahartzen ari dira eta kosta egiten da herri horiei bizia emango dienen erreleboan pentsatzea. Egoera horretaz larrituta, zenbait larraundar bildu eta talde bat sortu dute, BiziLarraunbizi.

Larraungo garapena aspalditik mahai gainean dagoen kezka da, baina badirudi jada iritsi dela esku-hartzeko momentua. Rafa Etxarri: “Nik pertsonalki pausoren bat emateko beharra sentitzen nuen eta gazte hauei azaldu eta gaia pixka bat lantzen hasi ginen. Duela ez asko Jakoba Errekondok hitzaldi bat eskaini zuen gurean Zeraingo herrian aurrera eraman zuten garapen egitasmoan oinarrituta eta arrakasta handia izan zuen hitzaldi hark, badirudi kezka edo jakin mina badagoela. Zeraingo proiektua burutu zenean faktore asko alde zituzten, egungo egoera ordea estuagoa da”.

Urtarrilean bildu ziren lehen aldiz eta ahoz ahokoarekin jende gehiago elkartzeko hasi zirela azaldu digu Eider Irastortzak. Taldearen asmoak eta abiapuntua zehaztuta joan den hilean aurkeztu zuten jen-

Etxarrin etxe huts asko daude, zoritxarrez ez da han soilik gertatzen hori.

daurrean taldea eta osatu nahi duten proiektua.

Egitasmoa larraundar guztiak barne hartuta bultzatu nahi dute, Lekunberri barne, 17 herriak kontuan hartuz. Sugo: *“Azken batean denok talde sozial bakarra osatzen dugu”*. Gainera luzera begirako proiektua izanik ez dute instituzio publikoen esku utzi nahi herrien etorkizuna. Politika eta ideologia ezberdinetatik haratago denon artean osatu beharreko proiektua izatea nahi dute, larraundarrek euren sentitzea harana eta baita aranaren etorkizuna hobetzearen betebeharra ere.

Eiderrek nahiko triste ikusten ditu herriak azkenaldi honetan. Izan ere, haraneko populazioa jaisten eta zahartzen ari da nabarmen. Egia da Lekunberri azkeneko urteotan izan duen garapena guztiz kontrakoa izan dela, baina gainontzeko herri gehienetan 1857an biztanleriaren gehiengoa 0 eta 20 urte bitartekoak ziren eta egun 40 eta 60 urte bitartekoek osatzen dute populazioaren gehiengoa adin horretatik gorakoekin batera.

Larraungo herri asko bisitatuz gero, asko dira etxe hutsak, gehiegi zenbaitzen hasiko bagina. Baina era berean, taldekide hauek haranan ekimen asko antolatzen direla ere ikusten dute eta horiek indartu egin behar direla jendea aktibatu eta egoeraren gaineko kontzientzia sortzeko. Larrauni haran bezala kohesio handiagoa emateaz gainera, herriz herri lan egin behar dela uste dute, herrikeriak zentzu positiboan erabiltzea bizia emateko.

Zein da zehazki zuen helburua?

Rafa: Argi dago herriak ez direla duela 40 urte ziren bezalakoak izatera bueltatuko, herri bakoitzean 10-20 gazteko koadrilak zeuden garaiak historia-ra pasa dira. Gaur egungo baldintzak herrietan bertan oso bestelakoak dira eta horiek izan behar ditugu kontuan. Guk jendearen identifikazio nahia, gogo eta bizi poza zentzu baikorrean bultzatu nahi dugu gauzak elkarrekin egiteko. Azken finean, nik uste dut halako herri txikietan bizitzeko gehigarri bat behar duzula, plus bat. Hemen bizitzeak ekartzen ditu bere zailtasunak, zerbitzu falta, garraioa, mugitu beharra... Hutsune horiek beste modu batean ez baditugu asebetetzen oso zaila da. Horregatik gure asmoa lehendabizi talde nortasuna, kontzientzia eta harro sentitzearen grina indartzea da. Hori



“Larraundarron talde nortasuna indartu nahi dugu”

delako garapenaren bidean gauzak egiteko erregai nagusia.

Teoria ederra da baina hori nola eraman praktikara?

Rafa: Lehenik egin beharrekoa arazo bat dugula onartzea dela uste dut eta hori gaintzeko pausoak eman behar direla. Jendeak kezka baduen arren, badirudi badagoela halako utzikeria bat, agian gaia handiegi gelditzen zaigulako... Egia da garapenaz hitz egiten ari garela eta oso hitz potoloa dela, eta jendeak atzera egin dezakeela, baina pausorik ematen ez badugu...

Eider: Praktikara eramateko gune bat sortu nahi dugu. Hilabeteen adibidez bilera batean Larraungo herritar eta talde

eragile ezberdinetako jendea biltzea.


Sugo: Lehenik gaia sozializatu egin behar dugu, herritarrei honen inguruan gogoeta eginarazteko.

Jendearen parte-hartzea eta laguntza ezinbestekoa da orduan...

Rafa: Bai argi ikusten dugu proiektu hau garatzeko babes sozial zabal bat behar dugula. Denak batu eta ideiak eta irizkiak elkartrukatzeko proiektu bateratu bati heltzeko. Eta hori ez da bi egunetan egiten, agian ezta bi urtetan ere. Bakoitzak bere lanak eta egitasmoak ditu, kontua da denok egin dezakegula zerbait gure lekutik garapenaren bidean, eta proiektu hau hala ulertzea gustatuko litzaiguke, sentsibilitate guztietako jendea bilduz.

Epe luzeko proiektua da beraz...

Rafa: Bai gu XXII. mendeari begira gaudela. Askori oraindik urruti dagoela iruditzen zaie, baina ez dago horren urruti,



gure seme-alabek ezagutuko duten garaia dira. Garrantzitsua da herritarrek dituzten kezkek biltzea. Gazteentzat lana eta etxebizitza dira garrantzitsuak, gurasoentzat askotan euren seme-alabak herri txiki batean bizi izanagatik alboratuak sentitu ez daitezela, denbora libre eta jolasak norekin konpartitu izan dezatela, helduenentzat zahartzaroari eta bakardadeari nola aurre egin... Azken hori ere oso arazo potoloa da eta gauzak aldatzea ez da erraza, baina ahalegina egin beharko dugu. Gainera, badira ere gauza positiboak, ekimen asko antolatzen dira gurean, kontzertuak, bertso-



afariak, merkatu txikiak, hitzaldiak... Eta ea saiatzen garen horien antolaketaren independentzia eta autonomia ukitu gabe ekimen horiek indartzen.

Lehenengo bilera noiz izango da?

Eider: Ekainaren 26an. Eta larraundar

guztiei etortzeko gonbitea luzatzen diegu guztiei, herritar guztiei, kulturaren aritzen direnei, kirolariei, gurasoei, adinekoei...



Arkaitz Zapata, 32 urte.

Nongotarra zara?

Ni berez Iruñekoa, baina nire familia baztandarra da. Duela hiru urte etorri nintzen Mugirora. Txikitatik nuen herri txiki batera bueltatzeko ametsa. Hirian bizitzeaz jada nahiko nekatuta nengoen eta Nafarroan barna lursailak begiratzen hasi nintzen. Hasieran Baztanen, baina Iruñean lan egiten dudanez urrutiti gelditzen zitzaidan, gero Ultzama eta Basaburuan eta azkenean hemen amaitu dut.

Lursaila erosi eta etxea egiteko erraztasunak izan dituzu gurean?

Ez erraztasunik ez, kontrakoa esango nuke, traba asko izan nituen, baina azkenean lortu nuen.

Zer da halako herri txiki batean biltzen zenuena?

Lasaitasuna eta naturarekin kontaktuan egotea. Lanetik natorrenean hemen berehala deskonektatzen dut, bizikletan ibiltzera joanez, baratzean... Hiriak aukera asko ematen dizkizu, baina ez zidan nik biltzen nuena ematen.

Horrek autoan bueltaka ibili beharra konpentsatzen du?

Bai, bai, azken batean, hogei minutu



baino ez dira eta lanean ere leku batek bestera ibiltzen naiz. Beraz hori ez da sakrifizio handiegia niretzat.

Eta herritarrekin zer moduz?

Egia esan hasieratik oso-oso ongi. Herri txikia da eta bizilagunekin oso ongi moldatu naiz, laguntza handia izan dut beraien aldetik.

Zer behar dute halako herriek kanpokoak hona bizitzera etorri edo bertakoak hemen gelditu daitezen?

Lehenik ilusioa eta hemengo bizimodu gustatzea. Baina argi dago erraz-

tasunak beharrezkoak direla. Etxea egin edo erosteko bankuarekin zorpetu egin behar zara eta Kontzejuek etxebizitzekin negozioa egiten saiatu beharrean erraztasun gehiago eman beharko lituzkete jendea erakartzeko.

Eta ze iruditzen zaizu sortu berri den talde honen ideia?

Ba oso egitasmo polita eta beharrezkoa. Hemen, Mugiron, 30 bat pertsona bizi gara eta horietatik 20 baino gehiago adineko jendea da eta horiei erreleboa hartzeko jendea behar da.

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 576
info@bidegoxo.com

Industrialgunea
Lekunberri 9 - 31870
LEKUNBERRI

Cyclos IREBER

BIZIKLETA DENDA ETA TAILERRA

Iñigo - 637 781 789
cyclosireber@yahoo.es - www.facebook.com/cyclosireber



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean

Pakito Saralegi, Intza Joane Martinikorena, Lekunberri
Ekainak 23
Zorionak Pakito eta Joane!!
Aitona ta bilobari
urtebetetze egun polit bat opa
dizuegu
bihotz-bihotzez biori.
Muxuak. Zuen familia.



ZORIONAK PAKITO ETA JOANE
eta urte askotarako!!!
Egun polit bat pasatzeko
festa handi bat egin ospatzeko
ta abisatu guri azkar joateko.
Besarkada handi bat.
Zuen Gaintzako lagunak.



Irati Garmendia Huarte, uztailaren 2an, 10 urte.
Olaia Huarte Zubeldia, ekainaren 11n, 9 urte.
Maddi Huarte Zubeldia, ekainaren 9an, 11 urte.
Lorea Huarte Zubeldia, ekainaren 9an, 11 urte.
Zorionak laukote eta urte askotarako, ongi pasa zuen egunean. Gastesiko familiaren partez.

Goreti
Ekainak 16, 2 urte
Zuriñe
Ekainak 30, 5 urte
ZORIONAK BIKOTE!!! Ongi pasa zuen urtebetetzean eta segi hain alai eta bihurri izaten. Muxu pottolo bat aitaxo eta amatxoren partez.



Luana Bécarea
Ekainaren 23an, 5 urte
Zorionak Luana! Egun berezi honetan ongi-ongi pasatzea espero dugu. Asko maite zaitugu! Muxu haundi bat ama eta aitaren partetik.



Ainhoa Lertxundi
Ekainak 4, Gaintza
ZORIONAK AMATXO!!!
"Belarritik tira, opariak jaso eta tarta goxoa jan. A ze egun polita pasako duguna". Muxu asko. Aitaxo, Irune eta Ekiñe.
ZORIONAK AINHOA ETA URTE ASKOTARAKO!!
Ez galdu inoiz irribarre eder hori, zure alaitasuna kutsakorra da eta. Ongi pasa eta besarkada handi bat. Lekunberriko lagunak partetik.



Manex
Ekainaren 25ean, 8 urte
Gure gizontxo poliki-poliki handituz doa!
Ongi pasa zure egunean, muxu handi bat zuretzako. Julen, aita eta ama.



Eneko Oreja
Ekainaren 23an, 4 urte
Zorionak pottoko!!! Haundi-haundia zaude ya eh! Ongi pasa zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat Aitaxo, Amatxo, Egoitz eta Itxasoren partez. Muaaaaaa...

Kaiet Eskamendi
Ekainaren 16an urte bat
Zorionak Kaiet!!! Poz pozik abestuko dizugu zure lehenengo zorionak zuri!
Muxu erraldoi bat Egoi, Izarne, aitaxo eta amatxon partez.





168 etxebizitza berri Araitzen

168 etxebizitza berri eraikitzeko kapazitatea aurreikusitako Araizko Udal Egitasmo Orokorrean. Gainera Atallun haran osorako kirolegia eta industria-gunea ere eraikiko dira.

Bestalde, joan den apirilaren 9an Beteluko hirigintza planaren proposamena publikoki aurkeztu zuten. Maria Urmeneta eta Patxi Chocarro arkitektoek egin zuten aurkezpena hogei herritarren aurrean. Dokumentua ikusgai dago udaletxeko idazkaritzan eta baita Iruñeko Papeleria Rubio, Bergamin kalea 10. Telefonoa: 948 237704.

<http://www.papeleria.rubio.com>.

Xaboa egiten

Maiatzaren 13an Mintzakide egitasmoak eta Euskara Batzordeak, Amaralar Elkartearekin batera, xaboa egiteko tailerra antolatu zuten. Amaralar Elkarteko Joseba Artzeluts izan zuten gidari, etxean xaboa nola egin daitekeen erakutsi zien parte-hartzaileei. 13 lagun bildu ziren guztira eta oso gustura ibili zirela azaldu digute antolatzaileek.



- 14 -

Hautestontzi erraldoia ekainaren 21ean Iruñean

Ekainaren 21ean Euskal Herriko hiriburuetan Gure Esku Dago ekimenaren ekitaldi nagusia egingen da. Aurretik herriz herri jositako oihal zatiekin hautestontzi erraldoiak osatuko dira. Gurean dagoeneko prest daude Iruñera eramango diren oihalak. Goizeko 12:00etan oihalak josiko dira, baina ekitaldi nagusia arratsaldeko 17:30etan izanen da zezen plazan. Antolatzaileen arabera, "hautestontzi horiek, etorkizun hurbilean, gure borondatea eta erabakia libreki azaltzeko aukera eman go dutelako. Herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugulako eta herritarren garaia delako". Egun horretan Iruñera autobusean joateko aukera egonen da, horretarako informazioa zaituz eta eman izena 699 36 47 04 telefono zenbakian.

urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32

panaderia okindegia RIOJA

GALBURU

Alde Zaharra, 50 - 31570 LEKUNBERRI (Nafarroa)

Tel: 948 50 40 42 - 609 720 313

IORTIA

Juanjo Gaité García
Odontologoa Kol. Zbkia. 317

Tel. 948 467 603
Altsasu

Tel. 948 604 804
Lekunberri

HORTZ KLINIKA www.clinicaiortia.net

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA

Ur festa, ikasturtea amaitzeko



Euskara Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuek, Larraun eta Lekunberriko Udalekin batera, hainbat ekintza antolatu dituzte ikasturtean zehar 12-16 urte bitarteko gazteentzat. 2014 urtearen erdian Lekunberriko eta Larraungo Udalekin eta eskualdeko gazteekin bildu ziren Euskara Zerbitzua eta Gizarte Zerbitzua, aisialdiko proposamen bat aurkezteko asmoarekin. Proposamena ilusioz jaso zen gazteen artean, eta udalek ere modu onean ikusi zuten. Hori dela eta, gazteek egindako proposamenak kontuan izanda, urrian jarri zen martxan egitasmoa. Bi ekitaldi egin ziren iaz: ur festa urrian eta zinema saioa azaroan.

2015ean, berriz, honako jarduerak egin dira: sukaldaritza tailerra, batukada eta dantza afrikarrak eta larruzko gauzak egiteko tailerra. Hilean behin jarduera bat egin da, asteburuetan. 30-40 gazte bildu dira denera, giro ederrean. Helburua eskualdeko gazteei gizartearen integrazteko eta egokitzeko baliabideak eskaintzea, nerabeak elkartzeko gune bat sortzea eta euskararen erabilera sustatzea da besteak beste.

Ikasturteari ur festarekin emango zaio amaiera, ekainaren 6an, larunbatarekin. Iluntzeko 20:00etan elkartzeko dira gazteak Lekunberriko kiroldegian. Orain arte bezala, norberak bere ogitartekoa eraman behar du etxetik, eta antolatzaileen kontura izango dira ura, freskagarriak eta zukuak. Afaldu ostean, 20:30etik 22:30 ingurura arte puzgarriak, musika eta festa izango da igerilekuan, ongi pasa eta ikasturteari behar bezalako amaiera emateko.

Errazkinen eta Mugiron izanen da aurtengo Larraungo Eguna

Ekainean ospatuko da Larraungo Eguna. Aurten Errazkinen eta Mugiron izanen dira ekitaldiak. Ekainaren 20an, larunbata, Astizko Mendukilo Koban Zuberoako abeslarien kontzertua izanen da eguerdiko 12:30ean. Arratsaldean berriz, dantza emanaldia, pilota partiduak, zirko tailerra etab. Izanen dira Errazkinen. Eta gauean barrikotea Oderizko Juanluzenea Sagardotegian Mikel Lasarteren eskutik "Plaza-dantza". Ekainaren 28an berriz, Mugiron herri kirolak, herri bazkaria, puzgarriak, ume jokoak eta askoz gehiago izanen dira. Bazkarirako txartelak herri guztietan daude salgai (ohi bezala herriko pertsonaren bat arduratuko da). Horretaz gain, Larraungo Udaletxean eta Lekunberriko: Elostan, Laboral Kutxan eta Mitxausenean daude eskuragarri. Hiru txartel mota daude: helduenak, gazteenak (12-22 urte artekoentzat) eta umeenak (12 urte arte). Larunbateko ekitaldiak Errazkinen egitea aurreikusita egon arren, eguraldi txarra eginez gero, Iribasen ospatuko da.

Garagardo Festa Kattagorri Elkartearen

Hurrengo ekainaren 12 eta 13an Garagardo Festa ospatuko dute Lekunberriko Kattagorri Elkartearen. Arratsaldeko 18:00etatik hasita gauera arte sagardo mota ezberdinak dastatzeko aukera izanen da.



*“Telefonoa erantzutea
baino askoz gehiago da
Itxaropen Telefonoa”*

- 16 -



Psikologiako eta haur hezkuntzako ikasketak burutu dituen ingeleseko irakaslea dugu Iosune Beltza. Edinburgotik bueltan, 2012an, bere denbora jendeari laguntzeko erabili nahi zuen, eta Itxaropen telefonoan aurkitu zuen bide hori jorratzeko aukera.

Zer da Itxaropen Telefonoa?

Irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakundea da (GKE) eta ongizate eta osasun emozionalean laguntzen du. Alegia, laguntza psikologikoa ematen duen elkarte da. Apolitikoa eta akonfesionala da, eta ez du balio epaiketarik egiten.


Baina buruan dugun zerbitzua baino gehiago da Itxaropen Telefonoa.

Askoz gehiago. Jendeak gehien ezagutzen duen zerbitzua telefonoarena da, hau da; deitzaileak krisialdi egoera batean deitzen du eta erantzuten duenak nolabaiteko jarraibideak ematen dizkio, pertsona horri ahal den neurrian, norberaren arazoari norbere erantzun eta irtenbideak bilatzen laguntzeko edo. Edozein izan daiteke bazkide eta edozein izan daiteke boluntario.

Hala ere, telefonoaren zerbitzuz gain, osasun emozionalarekin loturiko hainbat ikastaro eskaintzen ditu GKE honek: autoestimua indartzekoa, komunikazio positiboa, bereizketa afektiboa, guraso hezitzaileen eskola, yoga eta garrantzitsuenak autoezagutza eta norberaren hazkuntza pertsonala dira. Hauek guztiak irreak dira, eta dohainik. Normalean, 8-12ko taldeak dituzte. Hauek taldean dauden arazoengatik hitz egiten dute. Beharra duen edozeini egiten diogu kasu. Psikologoarengana jotzeko aurretik telefonora deitu behar izan du, eta telefonoa hartzen duen horrek baloratzen du psikologoarengana deribatu behar duen. Psikologoaren atentzia zuzenekoa da, ez telefonoz.

Laguntzaile edozein izan daitekeela diozu baina formakuntza ere jaso behar da.

Bai, noski. Urtebeteko formakuntza da. Boluntarioa edozein izan daiteke baina hori egin beharra da. Eta ezinbestekoa da besteei laguntza psikologikoa emateko, laguntzen duen hori psikologikoki ongi egotea. Urte erdia autoezagutzarekin eta hazkuntza pertsonalarekin lotutakoa jasotzen da, eta beste urte erdia laguntza harreman bat nolakoa izan behar duen azaltzen digute, eta orientazio telefoniko hori nola izan behar den. Azken finean, boluntario izateak ahalegin bat eskatzen du, baina honi gaineratu behar zaio ere buruz indartsu egon behar zarela. Esaterako, ez da berdina erakunde batean bazkariak banatzen aritzea (oso baliagarria



Norbera ongi sentitzeko, nor bere burua zaindu behar du.



dukoak dira, eta gutxienez, astean bat egiteko konpromisoa hartzen dugu, nahiz eta arrazoi ezberdinengatik beti ezin den bete. Azken hilabete hauetan gure formazio horri segida ematen hasi gara: hilean behin saio batean elkartzen gara gai desberdinak jorratzeko. Beste alde batetik, psikologoak berriz elkartzen gara hilean behin suertatzen diren kasuak komentatzeko eta pixka bat elkarri laguntzeko helburuarekin. Psikologoak ez diren orientatzaileak ere hilabetero elkartzen dira eta telefonoa erantzutean izan dituzten bizipenak konpartitzeko elkarri laguntzeko asmoarekin.

“Zerbitzu telefonikoaz gainera, osasun emozionalerako ikastaroak eskaintzen dituzte”

eta beharrezkoa) edo telefonoa erantzuten aritzea. Batzuetan ez da izango ezer larria baina beste batean izan daiteke bere buruaz beste egin nahi duen norbait.

Beraz, formazio horretarako ere gogotsu egon behar zara.

Bai, prest egon behar zara zure buruaz hausnartzeko eta zure barneak ezagutzeko. Dedikazio aldetik txandak 4 or-

Nolatan hasi zinen Itxaropen Telefonoan?

Edinburgotik bueltatu nintzenean nire denbora norbaiti eskaini nahi nion, besteengatik zerbaite egin nahi nuen. Psikologoa naiz, baina nire alderdi hori lotan bezela zegoen. Nolabait esnatuz joan zen bueltatu nintzenean: psikologiarekin lotutako lan hori berreskuratuz eta neukan denbora libre hori uztartu nahi nituen. Gero, familian gertaera oso mingarria izan genuen eta familiako lagun berezi baten bidez Itxaropen Telefonoa gehiago ezagutu ahal izan nuen, erakundeari buruz hitz egin baitzidan. Bera bertako kide izanik bilatzen ari nintzena bertan aurkituko nuela esan zidan. Eta horrela hasi nintzen. Era askotara lagundu daiteke baina niri bide hau ikaragarri gustatzen zait. Ni boluntarioa naiz eta horrez gain bazkide

elkARRIZketa:

*“Bizipenak konpartituz,
batak besteari laguntzea
oso aberasgarria da”*

kolaboratzailea, urtean diru kopuru bat emanaz.

Zein da zure zeregina erakundeetan?

Telefonoarekin lehen hiru hilabeteak egin nituen, baina gero, psikologoa naizenez, autoestimuko talde bat eramateko proposamena egin zidaten eta nik baiezkoa eman. Esan bezala, autoestimuko talde bat daramat eta astero elkartzten naiz 12 lagun horiekin. Talde itxi honekin zera egiten dut: dokumentu bat ematen zaie autoestimua erakundeekin lotuta, astean zehar irakurri behar dute eta gero elkarrekin lantzen dugu. Demagun autokontzeptu eta autoebaluaioari buruzko idatzia ematen diedala: gero ariketa batzuk dituzte, hausnartzeko aukera emango dietenak. Teoria hori beraien bizipenetan aplikatzen dute eta gure asteroko saio horretan taldean egiten dugu lan. Erronda bat egiten da eta elkarri laguntzen diote, bizipen hauek konpartituz. Batak besteari entzutea oso aberasgarria da. Nire eginbeharra taldean, bereziki, taldea eta denbora kudeatzea eta saioa bideratzea da. Urtean bi aldiz egiten da, hau da; urtean bi talderekin egiten dut lan.

Zertaz jabetu zara talde hauekin?

Deitzen duen guztia kaleko jende arrunta dela, zure bizilaguna, sendikoa edo lanekoa izan daitekeena: ez da jende arraroa, munduan galduta dagoena edo depresioak jota. Ongi sentitzen ez den jendea da, aurrera egiten ez dakien pertsona eta triste edo gaizki dagoena. Baina hobeto sentitzeko irrika daukate. Hobetu nahi du eta badu irrika bat hobetzeko eta bere bizitza hobe eramateko. Jende hau pentsatzen hasten denean pasatzen zaionaren parte handi bat bere buruan dagoela, ikuspegia aldatuz hobetuz joan daitekeela ere ikusten dute, ahalegin handia eginda beti ere. Gauzak beste modu batean ikusten jakin behar da. Talde hauetan esaten diegu: guri ez digu gertaera batek eragiten, gertaera hori ikusteko dugun moduak baizik. Alargun geratu izana,

esaterako, oso gertaera latza da, hori ez du inork ukatzen: baina hori nola eramaten duzun beste gauza bat da. Gertaerak nola hartzen diren, horretan dago gakoak.

Bakardadea sentitzen duten horientzat ere bada zerbitzu berezi bat, ezta?

“Lagun artean” izena duena, bai. Hilean behin bakarrik sentitzen den jendea egoitzara joaten da eta elkarrekin pasatzen dute denbora bat. Boluntario batek gidatzen du talde hau eta ekitzen artean, izan daiteke adibidez pelikula bat ikustea.

Telefonoz ematen den zerbitzua anonimoa da?

Erabat anonimoa, baina bai datu batzuk jasotzen ditugula. Baina dei guztiak erregistratu egiten dira, kasuistikagatik eta segurtasunagatik.

Nola deskribatuko zenuke deitzen duenaren profila?

Zaila egiten zait... baina orokorrean bakarrik dagoen jendea da, inorekin hitz egiten ez duen jendea, baina ez bakarrik bizi direlako. Barruak husteko norbait ez duen jendea da, eta ez dutenak epaituak izatea nahi. Gehiengo emakumeak izaten dira eta gehienetan ere heldu xamarra. Entzutea nahi dute. Dei askotan guk entzun egiten dugu eta nolabait beraien erantzunak bilatzen laguntzen diogu. Ez diogu inoiz gure iritzia emango, eta noski, ez ditugu epaituko. Guk bere bide hori bilatzen lagundu behar diogu. Askotan jendea deitze hutsarekin eta hustearekin jada ongi gelditzen da. Larritasuna dute askok eta entzunak direla sentitzearekin nahikoa izaten dute. Argi dago dei batekin ezin duzula beraien bizitza konpondu, baina bai jabetu daitezkeela gauza batzuek.

Beraz, deitzaileen beharrak edo ga-beziak zein dira?

Normalean autoestimua baxua dute, ez dute estrategia nahikorik aurrera egiteko, norbaiten beharra dute... Bartzuetan entzutea bakarrik nahi dute, ez dute ezta konponbiderik nahi: hitz egin, hitz egin eta hitz egin. Zer edo zer txarra egiten duten horiek ere dei dezakete. Portzentaje oso txiki batean, bere buruaz beste egin nahi dutenen deiak ere jasotzen dira. Nafarroako egoitza horretan aitzindaria da: dei

*“Gertaerak baino gehiago
gertaera hori ikusteko
moduak eragiten digu”*



Deitzaileen kopuru handienak bakardadea sentitzen duelako deitzen du.



Itxaropen Telefonoan ez dute inoiz gomendiorik edota iritzirik ematen.

deiak ere hartzen ditugu (zaintzan egongo bagina bezala). Baina kroniko hauek badakizkitez egoitza guztietako telefonoak eta badakitez nora deitu.

Duela urte batzuk baino dei gehiago jasotzen direla esango zenuke?

Deiak ez dakit areagotu diren, baliteke baietz, baina argi dago Internet bidez asko hedatu dela erakundeak. Facebook ere dago eta osasun emozionalari buruzko artikulu desberdinak daude eskuragarri. Hedabideetan ere honi buruz asko hitz egiten da. Horri gehitu behar zaio jendearen azken urte hauetako kezka: duela 20 urte inork ez zuen planteatzen autoestimua arazorik izango zuenik. Gure gizartea aldatu da. Lehen ez zen ongizate emozionalaz hitz egiten, oso kontzeptu berria da hori gurean.

www.telefonodelaesperanza.org
 948 243 040 - 948 243 040 / 902 500 002
 San Blas 13, Arrotxapea
pamplona@telefonodelaesperanza.org

hauek jasotzean 112rekin komunikatzen da, deitzaileak ditugun datuak emanez (nondik deitzen duen, adina, sexua, non dagoen... datu zehatz batzuk), baina inoiz ez dute elkarrizketa entzungo. Dei hau ez du inork jaso nahi izaten...

Errepikatzen duten deitzaileak badaude?

Deitzaile kronikoak deitzen diegu, eta badira, bai. Espainiako edozein lekutakoak dei zaitzakete, gai desberdinekin. Guk Nafarroako telefonoa erantzuten dugu, eta asteburu batzuetan Logroñoko eta Oviedoko egoitzetarako

ARIN-ARIN

Telefonoz esan behar ez dena

“Ni zure azalean banengo zera egingo nuke”. Hori ezin da esan.

Askotan errepikatzen duzuen

Garrantzitsua da bestearen aurpegia ikusten ez zaudenez, komunikazio hori mantentzea. Besteak ikusi behar du zu hor zaudela: “bai, ulertzen dut, noski”... halakoak erabiltzen ohi dira.

Zure laguntzan gogorrena-zailena zaizuna

Iruditzen zaizunean ez duzula laguntzen. Nola lagundu ez jakitea, sentsazio horrekin gelditzea. Oso garrantzitsua da deskonektatzen jakitea, ezin baitzara entzun dituzun gauza horiekin etxera joan.

Zure ekarpenaren alderdirik pozgarriena

Deitzaileak zure laguntzari esker aurrera pauso txiki bat egin duela ikustea. Horrek dena merezi du.

Nahi ez duzun deia

Inoiz ez dakizu zein egongo den telefonoaren beste aldean. Telefonoak jotzen duen bakoitzean oraindik gaur egun sabela biltzen zait. Dei gogor-gogorrik ez dut jaso, baina momentua iristen bada, lasaitasuna: neure buruarengan konfidantza daukat eta badakit nire esku dagoen guztia egingo dudala, eta dakidan modurik hoberenean jokatu dudala.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
 gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
 Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

OKM
ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555



Udal guztiak berritu dira, Araizkoa izan ezik

Aurreko hilabete hauetan hauteskunde kanpaina bete-betean ibili ondoren dagoeneko erabakita daude gure Udal eta Nafarroako Parlamentuan hurrengo legegintzaldian arituko diren alderdi eta aurpegiak. Joan den maiatzaren 24an egindako hauteskundeen emaitzak mahai gainean izanda orain negoziaketarako ordua da. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak %71,37ko parte hartzea izan zuen aurreko legegintzaldian baino gehiago, aurrekoan %67,43koa izan baitzen. UPNk 15 parlamentari lortu ditu, Geroa Baik 9, EH

Bilduk 8, Ahal Duguk 7, PSNk 7 eta PPK eta Ezkerrak bina parlamentari.

Gure udaletako emaitzei dagokienez, aurten Araitz izan da albiste, ez baita zerrendarik aurkeztu udalerako eta kontzejuen kasuan ere Gaintzan eta Uztegin baino ez dute zerrenda osatzea lortu. Orain zenbait hilabete izango dituzte zerrenda osatzeko bigarren saiakera bat egiteko eta ateratzen ez bada Nafarroako Gobernutik bideratutako administratzaile baten bitartez kudeatuko da Udala hurrengo lau urteetan.



LEKUNBERRI

%76,63ko parte-hartzea:

787 herritarrek eman zuten boza.

Horietatik 240 abstentzio, 26 boza nulu eta 23 zurian.

Lekunberriko Taldea: 491 bozekin (%64,52) sei zinegotzi izango ditu.

1. Jose Mari Aierdi
2. Mikel Mikeo
3. Natalia Azcona
4. Uxua Huizi
5. Esther Tabar
6. Jaione Aldareguia

EH-Bildu: 247 bozekin (%32,46) hiru zinegotzi lortu ditu.

1. Mikel Betelu
2. Maialen Ruiz
3. Juan Mari Irastorza

LARRAUN

%69,28ko parte-hartzea: 557 herritarrek eman zuten boza.

Horietatik 247 abstentzio, 7 boza nulu eta 17 zurian.

EH Bildu: 240 bozekin (%43,64) lau zinegotzi izango ditu.

1. Mikel Huarte
2. Mikel Lasarte
3. Joseba Artzeluts
4. Jose Mari Astitz

Larraundarrak: 172 bozekin (%31,27) hiru zinegotzi lortu ditu.

1. Jose Javier Barberena
2. Jose Martin Martinicorena
3. Pedro Manuel Barberia

Larraungo Elkartea: 121 bozekin (%22) bi zinegotzi.

1. Martin Juanena
2. Javier Legarra

BETELU

%69,73ko parte-hartzea: 182 herritarrek eman zuten boza.

Horietatik 79 abstentzio, 11 boza nulu eta 37 zuri.

Arbide Taldea: 134 bozekin (%78,36) zazpi zinegotzi dagozkie.

1. Mikel Rekalde
2. Ander Arraztio
3. Yolanda Areitio
4. Joseba Eskamendi
5. Asier Elizalde
6. Teodoro Otamendi
7. Igor Otermin

(Oharra: Aurreko alean hanka sartze txiki bat egin genuen, hauteskunde hauetarako Bete-luko hautagai-zerrenda okerra zen. Arbide Taldea lehenengo zazpi horiekin batera Arantxa Erbiti, Aitziber Otamendi eta Xabier Sotilekin osatu zuten).



AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

INFORMATIKA BETELU
► ordenagailuen salmenta eta konpontzea
► sareen instalazioa eta konfigurazioa
634 551 743
informatika.betelu@gmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

Erromeria Santa Luzia baselizara

Apirilean uitziarrak Santa Engrazia ermitara egindako erromeriaren ondotik, maiatzaren 10ean arruiztarrak Santa Luzia baselizara joan ziren. Koadrila bat oinez irten zen Arruiztik eta beste asko autoz igo ziren. Guztira 40 bat lagun bildu ziren. Lehenik lurrak bedeinkatu zituzten eta Jesus Mari Sotilekin meza ospatu ondoren jan-edanarekin bukatu zuten ospakizuna. Joxe Mari Zabaletak ez dio erromeriari huts egiten eta horra hor berak utzitako eguneko irudia.



“Udan ere euskahaldundu zaitez”

AEK-k udako eskaintza kaleratu berri du eta horixe da aurten udako matrikulazio kanpainaren leloa. “Kontua ekitea da: eskua altxatu, hitza hartu eta plazan sartu” hori da AEK-ko irakasleen gomendioa. Udan ere euskara ikasten jarraitzeko aukera zabala dago, barnetegietan, euskaltegietan nahiz online. Euskaltegietan antolatzen diren ikastaro trinkoak eta mailak egiaztatzeko azterketak prestatzekoak. Bestalde, ibilbide luzea duten barnetegien eskaintza zabala dago: euskalduntze-barnetegiak, azterketak prestatzekoak, familia barnetegiak, ibiltariak (oinez edota bizikletaz), xiberera ikastekoa... Eta AEK-ko kideen arabera, barnetegia da euskara ikasteko lekurik onenetakoa. Euskara ikasten jarraitzeko edo azterketaren bat prestatzeko ohiko barnetegiez gain, familia barnetegiak ere badira, euskara ikasteaz gain, familiaren hizkuntza ohiturak sendotzeko, eta beste aldetik, ibiltariak, mintzapraktika egiteko Euskal Herriko txokorik ederrenak ezagutu bitartean. Hala ere, haraino joan gabe ere, zeure herrian bertan edo gertu edukiko duzu aukera ikastaro trinko bat egiteko. Informazioa Lekunberriko AEK euskaltegian: 948 604 704.

Kultur ekitaldiz betetako hilabetea

Maiatza kultur ekitaldiz beteta egon da. Naturbideen Egunaz gainera, Herri Urratserako autobusa antolatu zuten eta askok egun ederra pasa zuten Senpereko lakuaren inguruan. Aralar Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskaini zuten Lekunberriko kiroldegian eta Ibarberriko ikasleak antzezlan batekin ere ausartu ziren. Hilaren 23an Gorritiko elizan Lekunberriko abesbatzak kontzertua eskaini zuen eta hilabetea amaitzeko Tutture Mendi Taldeak antolatutako irteera izan zen.



asegurogintza
aseguru aholkulariak
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratu egotea da

Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.

Etxebizitzaren eraikuntza eta errehabilitazioa

948 504 351 - 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com
Oztegin kalea 2, Lekunberri

Nordic Walking ikastaroa aurtengo berritasun Naturbideen Egunean

Maiatzaren lehen igandean ospatu zen Naturbideen Eguna Plazaolan. Goiz eguzkitsua izan arren parte-hartzea espero baino txikiagoa izan zen. Ibilbide ezberdinak zeuden aurreikusita, batzuk Leizatik irten ziren, beste batzuk Latasatik, Uitzitik... Txikienek bizikletaz urteroko ibilbidea egin zuten Mugioko presara. Bestalde goiz osoan zehar artisauen produktuak erosteko aukera izan zuten bertaratutakoek eta txu-txu trenaren ere bueltak ibili ziren. Aurtengo berritasuna Nordic Walking ikastaroa izan zen. Lehenik tailerra eskaini zuten makilekin behar bezala ibiltzen ikasteko. Eta eguerdi aldera kirol horrek dituen onurei buruzko hitzaldia eskaini zuten Lekunberriko geltokian bertan.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

“Gerria behar bezala sartuz gero gorputzak gutxiago sufritzen du”

Mikel Berekoetxea gorritiarra iaz estreinatu zen lehenengoz segan, Gorritiko festetan Joakin Garmendia eta Alaitz Imazen aurka egindako apustuan, baina aurten izanen du lehen aldia Nafarroako eta Euskal Herriko Sega Txapelketetan. Nafarroako Txapelketako saioa Azkarateko Earteko belatxoan izanen da uztailaren 5ean arratsaldeko 18:00etan, Berekoetxea Jon Kanflanka “Mikone” leitzarraren aurka arituko da.



Mikel Berekoetxea iaz, Gorritiko festetan, estreinatu zen lehenengoz jendaurrean.

argitzerako hasten ziren eta lau orduz, sei orduz edo egun osoa ematen zuten...

Zein izaten da txapelketan egin beharreko lana?

Bi motatako txapelketak edo probak daude segan, azkartasun proba eta iraupen luzekoa. Nafarroako eta Euskal Herriko Txapelketan egiten dena da denbora jakin batean belar kilorik gehien botatzea. Baina azkeneko urte hauetan Europan beste modalitate bat ari da indartzen, metro karratu gutxi batzuk ahalik eta azkarren eta ongien ebakitzea. Gorritin egindako apustuan bien tarteko proba bat egin genuen, ordu erdi batean aritu ondoren txukun-nork moztu zuen ikusiz.

Eta Azkarateko proba nola aurreikusten duzu?

Ba egie esan ni sekulen ez naiz txapelketan aritu eta ikusteko dago... 45 minutuz arituko gara lanean eta gutxi gorabehera bakoitzak mila metro karratu inguru moztuko ditu. Hori baino gehiago zaila izango da, gainera aurreneko ebakia izanik beti gehiago kostatzen da.

Gauza asko hartu behar dira kontuan kirol honetan, ezta?

Bai kontuan hartu beharreko faktore asko daude: belar mota, sega, teknika, zorrozteko modua, mozteko estiloa...

Zein belar mota izaten da onena?

Aurreneko korteko belarrak kilo gehiago uzten ditu eta karga handiagoa. Bestalde, ardiek ibilitako larreak badi-ra belarra elkartuago ateratzen da eta mozteko zailagoa izaten da, izpi gehiago izaten baita espazio berean. Horrez

Noiz eta nolatan hasi zinen segaren kontu honekin?

2014ko apirilean hasi nintzen. Betidanik izan dut afizioa eta etxean beti nekazari giroan ibili izan gara, garai honetan belar bolak egiten eta bazterrak segarekin garbitzen. Iaz Tolosako Inauterietan Joakin Garmendia anoetarra ezagutu nuen eta gosol ondoren brometan eta katxondeoan ibili ginen eta apirilean berarekin entrenatzen hasi nintzen Gorritin egin genuen apusturako.

Eta gustatu?

Bai, pesta ederra jarri genuen eta uste baino gusturago gelditu nintzen. Negan kirol gehiago egiten ibili naiz eta prestatzen. 2010etik ez da Nafarroako

txapelketarik jokatu. Mikone zuzenean Euskal Herriko Txapelketara joan izan da azken urteotan. Eta aurten Azkaraten biok arituko gara eta gero elkarrekin joanen gara uztailaren 26an Aian eginen den Euskal Herriko kanporaketara. Guztira bederatzita segalari arituko gara bi kanporaketatan eta lau onenak finalera pasako dira.

Hemen garai batean sega apustuak egiteko ohiturarik bazen?

Bai apustuak egiten ziren baina beste modu batera. Herri gehienetan bazen apustu soroa esaten zitzaiona, Gorritin, Aldatzen, Errazkinen... Orduan ohitura izaten zen zeinek moztu soro osoa norberak sega zorroztez. Goizean egunak

gain, satorlurra ere kontuan eduki behar da sega makestu egiten delako. Beheragotik mozteak hori du txarra, satorlurrak ez badira ikusten sega makestu eta aldatu egin behar izaten dela.

Zer da gehien kargatzen dena? gerria, besoak...

Gerria ongi sartuz gero gorputzak gutxiago sufritzen du, baina bestela besoek eta hankak lan gehiago egiten dute eta belaun gainak kargatu egiten dira.

Eguraldiak nola eragiten du?

Euria egiten duenean kilo gehiago mugitu behar izaten dira eta nekea handiago izaten da. Haizea ere aurretik baduzu belarra etzan egiten du eta lana nekezagoa da.

Eta segak non erosten dituzu?

Orain ibiltzen ditugunak Austriatik ekarriak dira. Legazpin bazen Bellota markako segak egiten zituen pertsona bat baina egiteari utzi zion eta orain Austriatik ekartzen dira.

Luzera beretsukoekin ibiltzen zarete denak?

Luzerak 125 edo 135 zentimetroak izaten dira eta motzenak 108-115 bitartekoak. Belar motaren arabera bat edo beste erabiltzen da. Kirtena ere garrantzitsua da eta baita segak kirtenarekiko duen angelua ere. Azken hori estiloaren arabera egokitzen du norberak. Mutil handia denak kirtena luzeagoa behar du eta txikiagoa denak motzagoa, eta gero norberaren estilo eta makurtzeko moduaren arabera egokitu egiten da angelua ahalik eta erosoan aritzeko. Horretan aditua den gizon bat bada Asteasun, Florentino.

Eta sega nola zorrozten duzue?

Sega zorrozteko bi pauso daude. Lehenik segaren punta, mehetu egin behar da, sega milimetro bateko lodierarekin etortzen bada mikratan jarri behar da, horri sega pikatzea deitzen zaio, garai batean hori mailuarekin egiten zen kolpeka findu. Behin hori eginda belarra moztu ahala makestu egiten da eta orduan harriarekin zorroztu egin behar da tarteka. Haus-



Aurten arituko da lehen aldiz Nafarroako eta Euskal Herriko txapelketetan.

“Oinutsik errazago freskatzen da gorputza”

ten ez baduzu sega batek erraz irauten ditzake hogeitun urte, gainera zenbat eta gehiago ibili orduan eta arinago bihurtzen da.

Zer da hobia belatsoa maldan egoitea edo lauagoa izatea?

Ba segalarien eta estiloaren arabera. Batzuek aldapan nahiago izaten dute goitik behera kiloak errazago mugitzen direlako, beste batzuek berriz, zelaian errexago sartzen dute gerria... Azkarateko belardiak aldapa pixka bat du eta gainbehera ebaki beharko. Ni egia esan berdintxu ibiltzen naiz.

Zu oinutsik ibiltzen zara...

Bai, gehienak hanka-hutsik ibiltzen gara. Lurrean behatzak gehiago sartzen dira eta baxuago ere gelditzearekin gerriak sartzea errazagoa egiten da. Gainera esaten dute gorputza errazago freskatzen dela horrela.

Entrenatzen non ibiltzen zara?

Gipuzkoan nabil egun hauetan, hemen ere belarra badugu, baina bolak egiteko girorik ez dago eta hemengo baserritarrek ez dute nahi. Anoeta inguruan ibiltzen naiz, han belarra hemen baino abudoxeago etortzen da eta gainera han baditut jubilatu ba-

tzuk belarra galtzea ere gehiegi inportatzen ez zaienak.

Epaileek ze penalizazio jar ditzakete?

Gu moztzen goazen heinean epaileek mailen azpitik behar bezala moztu dugun edo belar asko uzten ari bagara penalizatu egin dezakete bukaeran kiloak deskontatuz. Segak beti izan du joku zikinaren fama, segalariaren atzetik doazenen moztu gabe utzitako belarrak ateratzen ibili izanagatik etab. Horregatik orain hamar minutu baino ez dute izaten belarra biltzeko eta dena bixi-bixi egin behar izaten dute.

Laguntzaile lanetarako dagoeneko taldea prest duzu?

Ari naiz... Hamar bat laguneko koadrila behar da atzetik moztutako belarra bildu eta pisatzen ibiltzeko. Aurten segalariak aparte koadrilak ere debutatu beharko du. Behar bezala egiten ikasi beharko dute, nik adina denbora baino ez dutelako izango lan hori egiteko. Gorritiarrak izango ditut hortan laguntzen, azkaratearren bat ere...

Sega bada kirol bat ikusleentzako nahiko erlatiboan izan daitekeena, amaitu arte gauzak garbi ez direlako ikusten...

Bai, segak hori du txarrena, ez zaio antzematen pisatu arte. Afizioa duenak atzetik ohartzen da nola ari den ebakitzen, beheragotik edo goragotik, baina zehazki ezin da jakin.

Hodei Otegi txapeldun Nafarroako Kirol Jokoetan

Nafarroako Kirol Jokoetan emaitza ezin hobekak lortu zituzten joan den hilean atletismoko probetan Larraungo gaztetxoan atletismo taldeko korrikalariak. Hodei Otegi Nafarroako txapeldun izan zen 80 metroko abiadura proban, 10,05 segundoko markarekin eta txapelduna ere pisu jaurtiketan 10,37 metroko markarekin.

Idoia Lizarraga aldaztarrak laugarren postua eskuratu zuen 3.000 metroko proban 12 minutu eta 27 segundorekin eta bosgarren gelditu zen 500 metrokoan. Bostgarren egin zuen ere Irati Etxarrik 800 metrokoan, 2 minutu eta 42 segundorekin. Zorionak denoi!



Araxes laugarren Lauko Sokatirako Nafarroako Txapelketan

Lehenengo aldia zuten Araxes Herri Kirol Taldeko gazteek txapelketa horretan eta beste sei talderekin batera aritu ondoren laugarren postua eskuratu zuten. Unai Ijurko entrenatzailea pozik dago emaitzarekin: *“Kontuan edukita gazteagoak eta arinagoak direla, eta entrenatzeko duten azpiegitura gabezia, emaitza pozik egotekoa da. Pena da saria duten postuen hurrengo lortzea baina hala ere zoriondu behar zaie”*. Apirilean eta maiatzean zehar kanporaketak jokatu ondoren finala Berriozarko taldeak irabazi zuen. Hala ere hurrengo urteari begira berriz ere parte hartzeko gogorik ez zaie falta araztarrei.

Padel eta frontenis txapelketak

Ekainaren 5ean jokatu dira neska eta mutilen frontenis txapelketako lehen partiduak. Hilabete osoan zehar jokatu dira partiduak Larraungo frontoi ezberdinetan. Bestalde, ekainaren 13, 14, 20, eta 21ean Padel Txapelketako partiduak izanen dira Plazaola Kirolgunean.

Errekorraren bila

Ibon Urriaga beteluarrak erronka berria jarri dio bere buruari. 39 urteko txirrindulari afizionatuak hurrengo ekainaren 6an Valentziako Luis Puig Belodromoan, Master 30 kategoriako Espainiako Orduko errekorra gainditzeko saiakera egingo du. Ruben Ruizek 2010ean lortu zuen 43,078 kilometroko marka eta hori gainditzeko saiaturko da. Informazio gehiago, lahoradeibon.es atarian.






> Plazaola Partzuergoa



20 URTE BIDEAN

PR-NA 196 9,42ordu / 24,6 km



IXKIBAR- AITZMURDI

Hauxe da Leitzalarrea joateko izandu den betiko bidea; herritar nahiz bordari, hemendik joaten ziren leitzalarreko azienden nahiz mendiko lanak egitera. Herri ingurutik behin Arramiako lepora igotakoan, handik aurrera parez pare dago Leitzalarrea. Arramiako ibilbide honek bide nagusi izateari, Leitzalarreko errepidea egin zutenean utzi zion, 1954. urtean zehazki. Garai hartan, udalaren aginduz, ingeniariak baso-inbentario bat egin zuten Leitzalarretik “zenbat trabiesa” atera zitezkeen ikusteko (gaur egun metro kubikotan neurtzen da) eta horrela errepidea irekitzeko egin beharreko inbertsioa arrazoitzeko: egurra lapurren kaltzadatik barrera Plazaolara idiekien jeistea, tonako 200 pezeta kostatzen omen zen bitartean, kamioekin garraiatuz 30 pezetan egiten omen zen. Aldea bazegoen.



Aitzmurdin paraje ezin hobeez goza dezakegu. Leitzalarreko paraje honetan neurri bikaineko pago eta haritz mordoska ikus daiteke. Gehienak zaharrak dira, horietako batzuk 300 urtetik gorakoak. Aitzmurdiko zuhaitz zaharrek bertan iraun izana azaltzeko arrazoi ezberdinak daude. Batetik, leku honetara iristea zaila da, eta horrenbestez, zuhaitzak bertatik ateratzea ere zail gertatzen da. Eta bestetik, Leitzako herri-lurrak kudeatzeko plana egin zenean zuhaitz hauek babesteko erabakia hartu zen, duten tamaina eta edertasuna dela eta. Bertan tamaina handiko 80 bat pago eta haritz daude. Garai batean ikazkinek euren adarrak mozten zituzten ikatza egiteko. Urte asko dira, ordea, ez dela bertan halako mozketarik egin.

Baso naturaletan, tankera honetako zuhaitz zaharrak aurkitzea arraroa ez den arren, gaur egun ez dira hain arruntak, gazteei lekua uzteko zaharrenak mozteko joera baitago basogintzan.

“Gure asmoa 2018rako enpresaren fakturazioa bikoiztea da”

Mende erdia darama Wisco enpresak Betelun. 120 langile dabilta egun lanean, horietariko gehienak eskualdekoak, bertakoak. Joan den apirilaren 10ean brontzearekin lan egiten duen enpresa honen 50. urteurrena dela eta ospakizun berezia izan zuten. Javier Bollo gerentearekin izan gara.

Nolatan erabaki zuten bere garaian halako enpresa bat Betelun martxan jartzea?

Enpresako sortzaileak hiru donostiar izan ziren, Benancio Diez Arana, Eduardo Iglesias eta Marcelino Ibarrola. Frantziako iparraldean zegoen Wisco Francia enpresa bisitatzera joan ziren behin, bertan egiten zuten lana hemen egiteko aukerarik bazen ikusteko. Han baimena eman zieten eta bi gomendio egin zieten: alde batetik lantegia herri aldendu batean jar zezatela, izan ere ordurako kobre eta brontze lapurreten kezka bazegoen. Eta bestetik erreka ba-

ten ondoan egon zedila, hagak hozteko. Bi aukera zituzten, Goizueta eta Betelu, baina orduko Beteluko alkateak lurralde baldintza hobean utzi zizkien eta hemen gelditu ziren.



Nabe bakar batekin hasi izan ziren...

Bai. Lehenengo gerentea Pedro Calleja izan zen eta lehenengo nabe hura behi tartean eraiki zuten. Eta Frantziatik ekarritako pare bat makinarekin hasi ziren. Hango enpresa itxita dago jada.

Eta zer da zehazki hemen ekoizten duzuen?

Hemen brontzezko hagak eta jantak egiten ditugu. Gero horiek erabilera asko izaten dute, petrolio eremuetan, eolikoetan, presetako konportetarako, eguzki plaketarako, hondea-makinentzako...

Orduan pieza ezberdin asko egingo dituzue...

Ez, hemen semiproductua egiten dugu. Hiru bat metroko hagak edo jantak egiten ditugu eta hori biltegiatara saltzen dugu eta handik bezeroei saltzen diete emango zaion erabilerarako pieza sortzeko. Lan hori Lezon dugun Mecauto enpresan egiten dute neurri batean.

Brontzea nondik ekartzen duzue?

Brontzezko txatarra mundu guztian barna erosten dugu.

Eta behin hona iristen denean zein iza-



**GRUPO TANATORIO
IRACHE**
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

 696 658 288
LEKUNBERRI

**SK**

SUAKONTROL
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak

Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

ten da jarraitzen duzuen prozesua?

Hemen txarra sailkatu egiten da kalitatearen eta tamainaren arabera (eztainu kopuruaren arabera neurtzen da kalitatea). Gero labean urtu egiten da 1.300-1.400 gradutara eta forma eman ondoren produktua irteten da.


Brontzearen balioa beti gora joan da urte hauetan guztietan?

2005. urtera arte nahiko egonkorra zen bere balioa. Ez dut gogoan zehazki, baina 2.000 euro inguru izango zen tona. Gero batez ere Txinak egindako lehengaien eskariagatik igo egin zen eta tona 5.000 edo 7.000 euro ordaintzen zen. Momentu honetan 5.600 euro inguru ari gara ordaintzen, diru asko da. Hemen 1.000 tona ditugu amaitutako produktuetan eta beste 1.000 lehengaietan, eta 2.000 tona hamabi milioi euro balio ditzake.

Eta krisi ekonomikoak eragin al dizue?

Bai, 2007an jaitsiera nabaritu genuen, salmenten %30 jaitsi zen eta gastuak egokitu egin behar izan genituen, baina zorionez ez dugu kaleratzerik egin

behar izan, eta soldatak ere ez dira jaitsi. Gainera 2010. urtetik aurrera urtero salmentak gora doaz. Ordura arte %99 Europan baino ez genuen saltzen eta 2010ean kanpora irteko apustua egin genuen,



“Orain 5.600 euro ari gara ordaintzen tona brontze”

Indian saltzen hasi ginen eta gaur egun ia mundu guztian saltzen dugu, Indonnesia, Tailandia, Filipinak, Hego-Amerika, Estatu Batuak, Kanada... Horrek krisia gainditzen lagundu digu.

Langile asko bertakoak eta ingurukoak dira...

Bai, %70 ingurukoak dira.

Hori halako haran txiki batentzat garrantzitsua da.

Bai garrantzitsua da eta enpresak beti izan du bertakoak lehenesteko joera, lanpostu eta beharretara egokituz gero noski.

Beraz 50 urte hauen balorazio baikorra egiten duzue?

Bai, bai, oso positiboa. Bazkideek irabazien portzentaje handi bat berriz inbertitzen joan dira eta horri esker joan da lantegia handitzen. Ireki zutenean pare bat makina zeuden eta orain bederatzi makina bertikal eta bi horizontal dauzkagu. Eta asko jota ekainaren erdi alderako hiru makina berri jarriko ditugu eskariari aurre egiteko. Horregatik orain gutxi asteburuan ere lan egiten hasi gara. Hemenik kanpo beste lantegi bat irekitzeko lan egiten ari gara, gure asmoa 2018rako fakturazioa ia bikoiztea da. Hori da gure helburua, baina ikusi egin behar.



NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris1@hotmail.com

AMAIRU BAR
ETXKO PIZZAK.
KOPA BEREZIAK
948504352

Kantina Rock
948 60 48 21
KANTINA
bokatak, platerak eta...musika

TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitz
Lontxo Otamendi Artola

HAIZEAK ERAMANA

Madridtik iritsitako kontuak
> Eneko Etxarri

“Jendea oso azkar bizi da, denak presaka, baina azkenean moldatu egiten zara”

Eneko Etxarri lekunberriarra urriaz geroztik Madrilén dabil master bat ikasten eta dagoeneko bertako bizi erritmora zeharo egokituta dago.



Noiztik zaude Madrilén eta zertan zabilta?

Denbora gutxi daramat Madril aldetik. Kalitatea eta erosleen esperientziari buruzko master bat egitera etorri nintzen bertako negozio eskola batera, eta klaseak aurreko urrian hasi nituen, Lekunberriko festen ondoren.

Zenbat denborarako joan zara?

Masterra urtebetekoa da, baina hori bukatu ondoren bertan gelditu beharra dut gutxienez beste urtebete lan egiten, orduan ez dakit ziur. Baina seguru nago etorkizunean itzuli nahi dudala hona.

Zergatik aukeratu zenuen hiri hori?

Iruñean lanean ibilitako enpresan, kalitate lanetan ibili nintzen, bertako departamentu guztietan etengabeko hobekuntza plan bat ezartzen. Asko gustatu zitzaidan, nik momentu horretaraino ez bainuen kalitateari buruzko prestaketa handirik. Nire nagusiek bultzarazi zidaten kalitatezko master bat egitera. Oso leku gutxi daude horrelako master espezializatuak eskaintzen dituztenak eta gainera eskolaren sarrera probak pasatu nituen, ba Madrilera etortzea tokatu zitzaidan.

Zein da zure egunerokoa bertan?

Egia esan denbora askorik ez dut izaten, nahiz eta hasiera batean arratsaldez bakarrik izan behar nituen klaseak, ia goiz guztietan beste klase batzuk edo tailerrak jartzen dizkidate. Horrez gain, ia egunero ingeleseko bi ordu ematen ditut, eta gutxienez astean bi egunetan taldeko aurkezpenak egin beharra dauzkagunez, horiek ere prestatzeko denbora behar dugu. Ez dut denbora askorik Madrilén ibiltzeko tamalez.

Zer da gehien harritu zaituena?

Gizartearen bizimodua oso azkarra dela. Etorri nintzen momentutik jendearengan estres puntu bat sumatu nuen. Mundu guztia korrika ibiltzen zela iruditzen zitzaidan, denak presaka. Baina azkenean, zuk ere beraien erritmoa hartzen duzu, eta momentu oro korrika zabilzala konturatzen zara.

Janariarekin zer moduz moldatzen zara?

Ez dut arazo handirik izan, sukaldean ibiltzea gustatzen zaidalako. Normalean bertan gelditzen naizen asteburuak aprobetxatzen ditut aste osoko janaria prestatzeko. Gainera autoa bertan dudanez, bi-hiru astetik behin etxera bueltatzen naiz, beraz amak ere janaria prestatzen dit bertara ekartzeko.

Euskaldunik aurkitu al duzu bertan?

Euskaldun asko topa ditzakezu bertan, eta euskal elkarte baten bat edo beste ere badaude. Horretaz gain, Iruñeko lagun euskaldun pare bat eta Durangoko beste lagun bat ere badaukat.

Bertara joateko asmoa duen bati zer gomendatuko zenioke?

Gauzak lasai hartzeko gomendatuko nioke. Hemen gauzak oso azkar doazela iruditzen zait eta joaten zaren lekura joan zarela dena beteta dago (batez ere erdigunean). Beraz, dena denborarekin eta lasai hartzeko.

Eta zer ez zenuke gomendatuko?

Madrilén taberna izugarri daukazu zerbait jan edo edan nahi baduzu, baina zerbait hartzeko aurretik Tripadvisor edo horrelako aplikazioaren batean ikustea gomendatuko nuke, noizbait esperientzia txarren bat edo beste izan dugulako.

ekaina

6

Lekunberri: *Nepalen aldeko afari solidarioa Kattagorri Elkartean, 20:30ean.*

12-13

Lekunberri: *Garagardo festa 18:00etan Kattagorri Elkartean.*

13-14

Intza: *Kaleko II. Antzerki Festibala.*

13

Arribe: *Elorri Elkartearen XXV. urteurrena.*

21

Gure Esku Dago. *Hautestontzi erraldoiak osatuko dira Euskal Herriko hiriburuetan.*

23

San Juan bezperako suak.

agenda

merkatu txikia

LAN BILA

- 42 urteko emakume euskalduna pertsona helduen zainketarako eskaintzen da. 610 494 770.

- Lekunberri emakume bat prest **edozein lanetan aritzeko**: etxeko lanak, pertsonak zaindu, etxebizitzaren garbiketarako eta abar. Emilia Dimitrova, 948 604 893 / 679 053 368 .

MUGIROKO PESTAK 2015

EKAINAK 26 OSTIRALA

AFARI HERRIKOIA 22:00etan OSTATUAN

EKAINAK 27 LARUNBATA

12:00etatik aurrera ERRONDA

20:30ean BARRIKOTEA

00:00etatik aurrera DISKO PESTA OSTATUAN

EKAINAK 28 IGANDEA

11:30ean ERRONDA eta LARRAUNGO EGUNA MUGIRON

EKAINAK 29 ASTELEHENA

Goizeko 11:00etan MEZA

BETELUKO JAIK 2015

EKAINAK 25 OSTEGUNA

19:00 Txupinazoa

19:30 Frontenis finala

21:30 Herri afaria + Bakarrizketak

00:30 Zesuma taldea

03:00 Kantzontzilo eta kulero lasterketa

EKAINAK 26 OSTIRALA

11:00 Ume jolasak

17:00 Puska-biltzea bertsolari eta jokuekin

20:00 Aizkora apostua Riki - Juankar VS Lontxo-Bizen

20:30 Gabezin taldea

22:00 Zezen suzkoa

00:30 Gabezin taldea

03:00 Xabi dantzaleku DJa

EKAINAK 27 LARUNBATA

11:00 Herriko umeen arteko futbol partidua

14:00 Koadrilen arteko paella txapelketa

17:00 Puzgarriak + Mus/Partxis/Futbolin txapelketa

18:00 Pintxo txapelketa

19:00 Gazteen arteko jokoak

20:30 Laiotz taldea

22:00 Zezen suzkoa

00:00 Laiotz taldea

02:30 DJ Txoko

EKAINAK 28 IGANDEA

13:00 Pilota finala

17:30 Puzgarriak

18:00 Sagardo dastaketa. Bitartean, Ereintza dantza taldea

20:00 Egan taldea

21:30 Herri afaria

23:30 Egan taldea

EKAINAK 29 SAN PEDRO DEUNA

07:00 Auroroak

08:00 Diana

12:00 Meza

13:00 Umeen arteko pilota partiduak

17:00 Atxur/Zartari/Txapel jaurtiketa

18:00 Txokolatada + Tortilla txapelketa + Gazta zaharra

19:00 DJ Txoko disko festa umeentzat

20:30 Sari banaketa

21:00 Bukatzeko... Traka!

LARRAUNGO EGUNA 2015

EKAINAREN 20-AN, LARUNBATA (ERRAZKINEN)

12:30ean: Astizko Mendukiloko koban. Zuberoko abeslariak

17:00etan: "Tirikitrauki" dantza taldearen emanaldia

17:30ean: Pilota eskolako umeen pilota partiduak

18:00etan: Umeentzako merienda

18:00etan: Zirku ibiltaria. Zirku tailerra

18:00etan: Bisita gidatua Erasoko Jauregira eta errotara

20:00etan: Barrikotea Juanluzenea sagardotegiarekin eta "Plaza-dantza" Mikel Lasarte, Ortzadar dantza taldearen partaidearen eskutik

EKAINAREN 28-AN, IGANDEA (MUGIRON)

09:30ean: Mendi buelta TTuturrek antolatuta

10:00etatik aurrera txistulariak hainbat herritan

12:30ean: Aralar musika eskolako kontzertua elizan

13:00etan: Herri kirolak. Koadrilen arteko lehia

13:00etan: Herri animazioa

14:00etan: Herri bazkaria bertsolariekin

16:00etan: Oskar Estanga

16:00etatik aurrera puzgarriak

16:30ean: Umeentzako jokoak eta tailerrak

Bazkariko txartelak herri guztietan daude salgai (ohi bezala herriko pertsonaren bat arduratuko da). Horretaz gain, Larraungo Udaletxean eta Lekunberrin: Elostan, Lankide Kutxan eta Mitxausenean.
Gogoratu 3 txartel mota daude: helduenak, gazteenak (12-22 urte artekoentzat) eta umeenak (12 urte arte).
Larunbatekoak Errazkinen egitea aurreikusita dago, baina eguraldi txarra egingo balu, Iribasen egingo dira.